

Interes orokorreko antolamenduak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2018ko abuztuaren 8tik 31ra.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2018/08/08

- 2018ko uztailaren 24ko Ebazpena, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den bidaia agentzien sektoreko Estatuko lan-arloko hitzarmen kolektiboaren formakuntzako sektoreko batzorde paritarioa eratzeko akordioa. **11367 xedapena** – 2 or.
- 2018ko uztailaren 26ko Ebazpena, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den industria kimikoaren hitzarmen kolektibo orokorra. **11368 xedapena** – 130 or.

Bizkaiko Aldizkari Ofiziala 2018/08/09

- **EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA. - LANA ETA JUSTIZIA SAILA.** Erabakia Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko Lurralde ordezkariarena. Honen bidez, ebazten da Bizkaiko Altzarien Merkataritzako sektoreko Hitzarmen Kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48000585011981). **1 or.**

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2018/08/13

- 2018ko uztailaren 30eko Ebazpena, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den 2018rako sektoreko gutxieneko soldadari buruzko akordioa, zementu sektoreko materia konkretuei eta hutsuneen estaldurari buruzko Estatuko V. hitzarmenetik eratorria. **11515 xedapena** – 2 or.

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2018/08/14

- 2018ko uztailaren 30eko Ebazpena, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den kontzesio-erregimenaren menpe dagoen merkatu liberalizatuko aireko garraioaren sektoreari dagokion enpresa hornitzaile zibil pribatuen hitzarmen kolektiboa. **11570 xedapena** – 55 or.
- 2018ko abuztuaren 1eko Ebazpena, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez

erregistratzen eta argitaratzen diren funts publikoekin (osorik edo zati batean) sostengatzen diren irakaskuntza pribatuko enpresen VI. hitzarmen kolektiboko 2018. urterako ordainketa eskuordetuko irakasleen soldata-taulak. **11573 xedapena** – 18 or.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizial 2018/08/20

- Gipuzkoako Errepidean Zeharreko Bidaiaaren Garraioaren hitzarmen kolektiboa. **5656 xedapena** – 32 or.

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2018/08/27

- 2018ko abuztuaren 2ko Ebazpena, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den aholkularitza eta merkatuko nahiz iritzi publikoko ikerketa enpresen Estatuko XVII. hitzarmen kolektiboa zati batean aldatzeko akordioa. **11897 xedapena** – 3 or.
- 2018ko abuztuaren 3ko Ebazpena, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den industria metalgrafikoaren eta ontzi metalikoen fabrikazioaren sektoreari dagokion hitzarmen kolektiboaren aldaketa erabakiaren akta. **11901 xedapena** – 2 or.

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2018/08/28

- 2018ko abuztuaren 2ko Ebazpena, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den haragi-industrien sektoreko Estatuko hitzarmen kolektiboaren prebentzio eta esku-hartze protokoloa jazarpen kasuetarako. **11917 xedapena** – 9 or.

Bizkaiko Aldizkari Ofiziala 2018/08/29

- **LANA ETA JUSTIZIA SAILA. - ERABAKIA LAN ETA JUSTIZIA SAILEKO LAN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO BIZKAIKO LURRALDE ORDEZKARIARENA.** Honen bidez ebazten da Bizkaiko Bidaia-aren Garraio Erregular Eta Diskrezionalen sektoreko Hitzarmen Kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea zenbakia 48002335011981). **20 or.**

II.- ANTOLAMENDU ARAUEMAILEAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2018/08/25

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. - ESKUBIDE AITORPENA.** Abuztuaren 24ko 10/2018 Errege Lege-dekretua, zeinaren bitartez aldatzen den Gerra Zibilean eta Diktaduran jazarpena edo indarkeria pairatu behar izan zutenen aldeko neurriak xedatzen eta eskubideak aitortzen eta zabaltzen dituen abenduaren 26ko 52/2007 Legea. **11836 xedapena – 4 or.**
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA BERDINTASUNAREN MINISTERIOA. - GAILU ELEKTRIKO ETA ELEKTRONIKOAK.** PCI/891/2018 Agindua, abuztuaren 24koa, zeinaren bitartez aldatzen den gailu elektriko eta elektronikoen zenbait substantzia arriskutsu zehatzen erabilera-murrizketei buruzko martxoaren 22ko 219/2013 Errege Dekretuaren III. eranskina. **11837 xedapena – 8 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2018/08/08

- **BATZAR NAGUSIAK. - FORU ARAUAK.** 12/2018 Foru Araua, uztailaren 27koa, uztailaren 17ko 1/2018 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko, 33/2013 foru araua, azaroaren 27koa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga aldatzen duena. **3133 xedapena – 1 or.**

2018/08/10

- **ARABAKO FORU ALDUNDIA. - FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.** Foru Gobernu Kontseiluaren 41/2018 Foru Dekretua, abuztuaren 3koa. Onestea zenbait arauzko xedapen aldatu eta ondarearen gaineko zergaren eta hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren alderdi zehatz batzuk arautu daitezela, haien edukia egokitzeko Arabako zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilera egokitzeko Foru Araura. **3175 xedapena – 11 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2018/08/30

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 415/2018 Foru Agindua, abuztuaren 21ekoa, gasolio hobariatuaren azken kontsumitzaileak aurkeztu beharreko aitopen ereduak onartzen dituenak. 5848 xedapena 8 or.

E.B.A.O. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala): **Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO